


## II.-Baliozko proposamena:

Shiro S.A-k, asetuko duen beharra, pakete eta janarien banaketa da. Eskaintzen dugun zerbitzuaren nobedadea, dronen erabilpena ondasunak banatzeko erabiltzea da. Dronak orain dela gutxi sortu diren aurrerapen teknologikoa direnez oraindik ez dituzte zerbitzu eta erabilpen asko, hasieran pertsonak jostailu telegidatu moduan erabiltzen zituztelako. Gure ideia, dronak garraio bide moduan erabiltzea da janaria eta paketeak eraman ahal izateko eta bezeroek eskatutako ondasuna ahal den azkarren entregatzeko. Banatzeko metodo honekin, errepidean istripuak murriztuko aukera izango dugu, izan ere, pasaden urtean banaketa enpresetan lan egiten zuten %45 langilek istripu bat izan zuten.



Diseinuari dagokionez, gure dronak azken baliabide teknologikoak izatea dugu helburu gaur egungo aurrerapen teknologikoak aprobetxatzeko. Horrela aurrerapen berri bat agertzen denean gure dronei jarriko dizkiogu haien eginkizuna ahal den hobeto egiteko. Alde batetik, erabiliko ditugun dronen barruan GPS bat jartzea pentsatu dugu, gure bezeroak aplikazioa erabiliz momentu guztian bere ondasuna non dagoen jakin ahal izateko eta guk dron horrek izandako mugimendu guztiak kontrolatu ahal izateko egunen baten arazoren bat egonez gero ahal dugun hobeto konpontzeko.



Bestetik, kamara txiki bat integratu nahi dugu, kodigoak irakur ditzakeena. Honi esker, gure entrega egiterakoan ez denez enpresa langilerik egongo gure bezeroa eta ez beste edonork eskaera jasotzen duela ziurtatu nahi dugulako. Horrela, eskaera egiterakoan kodigo bat bidaliko diogu bezeroari drona bere portalera heltzerakoan eskaneatu ahal izateko eta entrega ondo egin dela ziurtatzeko.

Aplikazioarekin lortu nahi dugun beste gauza bat bezeroak entrega noiz jaso nahi duten erabakitzeko aukera da. Horren arabera, gure dronak bere lana bezeroen beharren arabera egiteko.

Hau guztiarekin dugun helburua gure bezeroei ondasunak leku fisiko batera garraiatzeko erraztasuna da. Gure zerbitzuari esker ez dira adibidez, haiek jatetxeetara joan behar bere afariaren bila, guk haien portalera era ez kutsakor batean eramango diogulako.

Azkenik, prezioak gure bezeroei eskaintzen diogun zerbitzuaren arabera egokitu nahi ditugu. Kontuan hartuta, dron bidez egindako garraio bat motoz egindako bat baino merkeagoa dela gure prezioak baita ere merkeagoak izango dira. Hasiera batean, entregatetik 2€ kobratu nahi ditugu baina geroago gure bezero ohikoenei %25-eko deskontuak egin nahi dizkiogu.

Gure enpresak eskaintzen duen eskuragarritasuna da urteko egun guztietako ordu guztietan zabalik gaudela eta erabilerraztasuna da gure aplikazioak bezeroei gauzak errezten dizkiela.